

# ERAILDAKETA PROZESUAK EUROPAN

SINDIKATU SOBERANISTEN TOPAKETAK

## Sindikalgintza soberanistaren topaketetako ondorioak

Bilbo, 2022ko martxoak 24

Estatuen eta botere ekonomikoen neurrira eraikitako Europar Batasun honetan, non sarritan herriek beren etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko duten eskubidea ukatua den, eta langile-klasearen eta herri sektoreen lan eta bizi-baldintzak gero eta prekarioagoak diren, sindikatu eta sindikalistok honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkiogu, bai gure herriei, bai nazioarteko komunitateari.

Enpresa transnazionalen deslokalizazio-politiken, langile-klasea pobretzeko estrategiaren eta borroka politikoaren espetxeratzearen eta kriminalizazioaren

aurka, antolaketarekin, elkartasunarekin eta komunitatearekin lotutako balioetan sakontzea behar-beharrezkoa da. Aldi berean, sindikatu subiranista eta ezkertiar gisa behar ditugun alternatibak sortzeko, berrikuntza ideologikoa gauzatzea ezinbestekoa da. Oztopoak hausteko eta elkar hobeto ezagutzeko koordinazio maila handiagoak behar ditugu, osatzen gaituen aniztasuna eta gidatzen gaituen batasuna balioan jarriz. Elkar ulertzearen eta alteritatearen bidez, gure herrialdeetan eraldaketa-prozesu estrukturalak bultzatuko dituen mugimendu bat eraikitzen hasi nahi dugu.

Globalizazio akulturalaren, kolonialismo ideologikoaren eta, ondorioz, Europako eta gure planetako aniztasun linguistiko, etniko eta kulturalaren galeraren aurrean, Europako eta Munduko aberastasuna eta aniztasuna osatzen duten hizkuntza eta kultura guztiak aldarrikatzea, babesten eta defendatzea aldarrikatzen dugu.

Azken urteotan, gero eta politika autoritarioagoetara, ez hain demokratikoagoetara eta errepresiboagoetara atzera egin dugu. Erreakzio antidemokratiko horrek gure herrietan, mugimendu sindikalean eta gizarte-eraldaketako mugimenduetan eragina izan du. Eskubide eta askatasunen murrizketa gero eta nabarmenagoa da herritarren begietan.

Eskuin muturreko mugimenduak munduan eta, bereziki, Europan izan duen gorakadak bereziki kezkatzen gaitu. Sistemak ezarritako arauak ez dute baldintzarik eskaintzen bizimodu seguru, justu eta burujabe baterako. Ildo horretan, emakumeen aurkako indarkeriak eta jazarpenak gora egiten jarraitzen du. Feminismoak lortutako indar korrelazioaren gorakadaren aurrean, erabat misoginoa den ultraeskuina, emakumeak buru dituzten mugimendu iraultzaileen aurkako eraso areagotzen ari da. Estrategia erreakzionario hauek gero eta modu bortitzagoan mugimendu feministak, langile etorkinak eta askapen nazionaleko mugimenduak etsai gisa begizatzen gaituzte.

Sindikatu eta sindikalista soberanistok nazioarteko harremanak ulertzeko modu berri bat aldarrikatzen dugu. Munduko potentzia handien interes geopolitikoek haratago, nazioarteko harreman berriak behar dira, existentzia-baldintza gisa

eko-interdependentziaren zutabearen gainean eta, aldi berean, ortzi-muga askatzaile gisa eraikiko direnak. Herriek ez dute ezer irabazteko eta aldiz asko galtzeko, gerra eta suntsipena eragiten duen nazioarteko logika honetan. Horregatik, Europako testuinguru honetan indarra hartzen ari den belizismoaren aurka gaude, eta herrien subiranotasunetik sustatutako elkarrizketa eta negoziazioaren alde egiten dugu gatazkak konpontzeko eta konponbideak aurkitzeko tresna gisa.

Horregatik guztiagatik, eta une historiko hau kezka handiz bizi dugun honetan, sindikatu eta sindikalista subiranistok, honako esparru hauen defentsan bat egiteko akordioak lortzeko beharra ikusten dugu:

- Herri burujabetza eta gure herrien auto-determinazio eskubidea.
- Preso politikoaren askatasuna eta erbesteratu politikoaren itzulera nahiz disidentzia politiko, sozial eta ideologikoaren aurkako errepresioa eta jazarpena gaitzesten ditu.
- Gizon eta emakumeen nahiz bertako eta etorkinen artean dauden arrakala eta asimetrien kontrako esfortzua.
- Nazioz-gaindiko kapitalari erantzunkizunak exijitu eta bizitza nahiz naturaren, herri eta pertsona guztien eskubideak erdigunean jarriko dituzten politika ekonomiko, sozial eta fiskalak.
- Feminismotik eta elkartasun internazionalistatik, ultra-eskuinaren gorakada eta honen bizitzaren kontrako erasoei aurre egiteko, herriok euste horma bat eraikitzea.
- Gure herrialdetara datozen pertsona etorkizun guztientzat, gure herriak lurralde seguru eta erosoak izan daitezela.
- Europako arma-norgehiagoka arbuiatzen dugu, eta, aldi berean, Nazio Batuen eta nazioarteko akordio berrien bitartez, bakea eta egonkortasuna aldeko apustua egiten dugu,

+ + + + + \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \*

+ + + + + \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \*

+ + + + + \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \*

+ + + + + \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \* \*